

IV. Eranskina (Oñatiko Inauteriak)

*Idatzi honetan Oñatiko Inauterietako Dantzen eta Doinuen inguruan hitz egiten da. Konposatzaileen inguruko informazio gehiago sarean izango duzue!

DANTZAK ETA MUSIKA

DANTZAK

Hasieratik adostu zen, dantzak espreski inauterietarako sortuak izan behar zirela. Horretarako euskal herriko txoko ezberdinetan erabiltzen diren urrats eta mugimendu koreografiko batzuen konbinaketa sinpleak prestatu ziren.

Dantza multzo honek osatzen du “oñatiko inauteria”ren errepertorioa:

- “Bixamona” kalejira
- “Kale Zaharra” kalejira
- “Ume Andia”
- “Paganera”
- Hartzaren polka”
- “Ordu Txikitan”
- ”kondeen balsa”

Urte batetik bestera zaila izan zen errepertorioa guztiz aldatzea eta Imotz eta Olagueko esku dantzak ere dantzatu ziren lehen urtean.

16 pertsonaz osatutako taldeak izaten dira, bakoitzaren buruan kapitain bat dagoelarik. Honen ardua izaten da kalejiran doazela, bere taldeak dantzatu beharreko pausu edo koreografia markatzea. Horretarako, makila edo puxika berezia du, guztiek ikusi dezaten. Azken batean, taldeko gidaria da.

BIXAMONA

Dantza hau kalejira bezala erabiltzen da. Batetik bestera mugitzeko erabiltzen den dantza bat da. 16 pertsonaz osatutako bi errenkadetan osatzen dira taldeak.

Dantzatu beharreko urratsak kapitainak markatzen ditu. Dantza honen melodia Antonino Ibarrendoren da.



KALE ZAHARRA

Dantza hau kalejira bezela erabiltzen da. Batetik bestera mugitzeko erabiltzen den dantza bat da. 16 pertsonen osatutako bi errenkadetan osatzen dira taldeak.

Dantzatu beharreko urratsak kapitainak markatzen ditu.

Dantza honen melodia Antonino Ibarrondorena da eta Iñaki Olalde letra jarri zion propio Iñauteritarako.

Horrela dio letrak:

Iñauteri jaietan txantxiku herrian Iñauteri jaietan udaberri atarian (bis)

Dantza zahar, dantza berri
Oin, hatz(oñatz) eta gerri
dantza berri, dantza zahar
orain motel gero azkar

Bazterrak musikaz eta kolorez bustiak
herritik eta herrixantzat
dantzari, pertsonai eta piztiak
musikaren doinuan
biluztuz guztiak
lotsatetik senda ditzagun
mozorro azpiak.

“UME HANDIA”

Makil dantza bat da. Bi errenkadan osatutako zortzi bikoteren arteko makila jotzeekin osatzen da. Makila bat darama dantzari bakoitzak eta eskuineko eskuan eramaten du.

Irudi koreografiko desberdinak eginez leku aldatze batzuk egiten dituzten eta hasierako posizio berdinean amaitzen dute.

Dantza honetan adibidez, lurra kolpatzen da makilarekin, lurraren esnatzea bilatuz.

Dantza honen melodia Antonino Ibarrondorena da eta arin arin baterako konposatutakoa da.

“PAGANERA”

Melodia, habanera bat denez, “pagano” hitzarekin uztartu ondorengo emaitza da dantza honen izena. Makil dantza bat da. Bi errenkadan osatutako zortzi bikoteren arteko makila jotzeekin osatzen da. Makila bakarra darama dantzari bakoitzak eta eskuineko eskuan eramaten du. Irudi koreografiko desberdinak eginez leku aldatze batzuk egiten dituzte eta hasierako posizio berdinean amaitzen dute.



Melodia Inazio Ibarrendoren Habanera bat da, propio dantzarako moldatua.

“HARTZAREN POLKA”

Borobilean eta bikotearekin dantzaten den kontradantza bat da. Polketan ohikoak diren jauzi txikiak eta oinak pixka bat altxatuz egiten dira mugimenduak, orpo-punta mugimenduak garrantzia berezia jasotzen duelarik.

Dantza honek 2 aldaera ditu, 16 pertsonako taldea borobilean kokatuta, edo partehartzailer guztien artean osatzen den borobil bakar bat eginda. Gainera dantza honetan dantzariak dantzatzeaz gain, izenak dioen bezala, hartzak ere hartzen du parte, han-hemenka, borobil barruan sartuz.

Inazio Ibarrendoren melodia baten moldaketa da.

“ORDU TXIKITTAN”

Borobilean eta bikotearekin dantzaten den kontradantza bat da. Eskema zirkular, karratu eta lerrodunak agertzen dira koreografian zehar. Polketan ohikoak diren jauzi txikiak eta oinak pixka bat altxatuz egiten dira mugimenduak, orpo-punta mugimenduak garrantzia berezia jasotzen duelarik.

Dantza hau 16 pertsonen osatutako borobil bakar batean hasten da, koreografia ezberdinak egin ostean, hasierako lekuan amaituz.

Polka bat da; Harkaitz Allurrek konposatutako melodia bat.

KONDEEN BALSA

Egunean zehar konde ta kondesak dantzaten duten bals bat da. Momentu honetaz baliatzen dira beraien harrotasun eta nagusitasuna adierazteko, borreoren babesean.

Egunean zehar, beste pertsonai batzuk ere dantzara biltzeko aitzakia izaten da.

Dantza honek benetako zentzua, egunaren amaieran hartzen du. Amaiera ekitaldian, plazan, bikotea dantzara ateratzen den unea aprobetxatzen dute herritar dantzariak beraiantzat izurria irudikatzen duten pertsonaiak herritik bidaltzeko. Nola? Hasiera batean talde bakoitzeko kapitainek, beraien puxika erabiliz eta erasotuz eta ondoren, herritar guztiak balsa dantzaten hauek bertatik kanporatuz.

Dantza honen melodia Antonino Ibarrendorenaren Fandango-vals bat da.

